

KANALAK

Gure gmail eta telefono zenbakia izango dugu, bezeroak edozein arazo edukiko balu, kontaktuan jarri ahal izateko. Pertsona bat egongo da momentu oro sail horretan lan egiten, edozein arazo konpondu ahal izateko. Komertzio lokalei gure plataformaren jakinarazpena izateko, informazioa utziko diegu haien dendetan, hainbat komertzio lokalek ez dutelako helbide elektronikorik.

Salmenta arloan, pertsona bat bakarrik beharko dugu, ia harreman osoa bezeroa eta dendaren artekoa izango delako eta gure lan printzipala izango da prozesu horren kontrola izatea.

Banaketa sailean, ez dugu kanpoko langilerik behar izango, guk egingo ditugulako banaketa lanak; hala ere, garraiolari autonomo bat behar izango bagenu, kontratatuko genuke.